

# elkar

liburuak
musika
nobedadeak

www.elkar.com

2009ko uda, 16. zenbakia

## Uxue Alberdi

**Hitzen eta istorioen lilura**

## INDISPENSABLES DE VERANO:

**Libros de bolsillo y Lisbeth Salander**

## Kolaborazioak:

**Helena Taberna, Jon Bilbao, Roberto Moso, Irati Jimenez**

# Dena dago ikasliburuetan

ikasliburu guztiak eskuratzeko:

elkar

w w w . e l k a r . c o m




ARRASATE · BAIONA · BERGARA · BILBO · DONOSTIA · GASTEIZ · HERNANI · IRUN · IRUÑEA · TOLOSA

# 25 urte

[ XALBADOR LIBURUDENDA elkar ]

Iruñeko **elkar** liburu denda zilarrezko ospakizunetan dabil. 25 urte. Mende laurdena. Atzo bertan, 1984ko ekainean, sortu zen Xalbador liburu denda, Comedias kaleko **elkar**.

1984 urteak izen literarioa du, nahiz eta kronika iluna ekarri gogora: Cortazar, Jorge Guillén, Truman Capote, Alexaindre, Sholojov, Manex Erdozaintzi poeta behenafarra... hil ziren. Krisi ekonomikoa latza zen: Euskalduna untziolaren borroka garaiak ziren, 1984 urte hasieran langabezia %18koa zen... Baina uzta urtea ere izan zen: Hertzainak taldearen "Hertzainak" diskoa kaleratu zen, Imanolen "Erromantzeak", Oskorriren "Hau hermosurie", Koldo Izagirrek "Euzkadi merezi zuten" idatzi zuen, Pako Aristik "Kcappo: Tempo di Tremolo" nobela...

Horixe izan zen Nafarroan Xalbador liburu denda berria irekitzeko aukeratu genuen urtea, **elkar** sareko bigarrena zen, Donostiako Bilintx zaharraren ondoren.

Nafartarren eskura liburu eta literatura aukerarik oparoena jarri nahi genuen, euskararekin edo euskal kulturarekin zerikusia zuen guztia eskaini. Hori zen ilusioa, eta konpromisoa, berriz, kultur topagune bilakatzea. Biak bete ditugulakoan gaude: ilusio berberarekin jarraitzen dugu lanean eta kulturarekiko konpromisoa egunez egun berritzen dugu.

Orain 25 urte, gaur egun bezala krisi garaia, orduan bezalaxe oraingoan ere onik aterako gara. Kultura ongi egokitzen baita krisi garaian: ez du besterik ezagutzen.

**elkar** está de celebración. 25 cumpleaños. Un cuarto de siglo. Era Junio de 1984 cuando se abrió en Pamplona la librería Xalbador en la calle Comedias.

El año 1984 tiene nombre literario pero fue nefasto para las crónicas: murieron grandes escritores, Cortázar, Jorge Guillén, Truman Capote, Sholojov, el poeta navarro Manex Erdozaintzi... Año de especial y virulenta crisis económica, igual que ahora, con sucesos como el de los Astilleros Euskalduna, por ejemplo. Empezó aquel año con un índice de paro del 18%... pero, como contrapunto, aquél fue año de buena cosecha: Hertzainak publicó su primer disco, Oskorri "Hau Hermosurie", Koldo Izagirre "Euskadi merezi zuten", Pako Aristi "Kcappo, tempo di tremolo"...

Ese fue el año que elegimos para abrir una librería en Nafarroa, la segunda de la cadena, después de la donostiarra Bilintx, con una ilusión y un compromiso: la ilusión, hacer de Xalbador una librería de referencia en Nafarroa y poner a disposición de los y las lectoras la más amplia selección tanto en libros relacionados con el euskera y la cultura vasca como de los temas más generales. El compromiso, ser más que una librería: un punto de encuentro para la cultura. Estamos contentos con el resultado. A partir de ahora intentaremos seguir siendo referencia en el mundo del libro, y nuestro compromiso sigue vigente y renovado.

Hace 25 fue un año de profunda crisis, como el actual, pero esperamos salir con bien. La cultura se amolda bien a los tiempos de crisis: no conoce otros.


elkar liburu denda sarea

**ARRASATE**
Erdikokale 14
943 79 78 29

**BAIONA**
Arsenal plaza
559 59 35 14

**BERGARA**
Ibargarai 12
943 76 40 50

**BILBO**
Licenciado Poza 14
94 443 47 08
Iparragirre 26
94 424 02 28
Zamudioko ataria
Zazpikale
94 416 14 50

**DONOSTIA**
Fermin Calbeton 21
943 42 00 80
Fermin Calbeton 30
943 42 26 96
Bergara 6
943 42 63 50

**GASTEIZ**
San Prudencio 7
945 14 45 01
Apraiztarrak 1
Campus
945 14 16 70

**HERNANI**
Kale Nagusia 30
943 55 15 37

**IRUN**
Colon pasealekua 8
943 63 17 26

**IRUÑEA**
Comedias 14
948 22 41 67
Larraona z/g Golem eraikina
948 17 55 38

**TOLOSA**
Arostegieta z/g
943 67 35 33


Kontseilu editoriala
Eli Betelu eta Mikel Arrizabalaga
L.G./D.L. SS-598/06



# Uxue ALBERDI

## “EGIAK HUTSA BALIO DU LITERATURAN”




Euskal letren plazan azken urteotan sortu diren ahots gazte berrietako bat da Uxue Alberdi. Bere lehen nobelan Kantoieta kostaldeko herrira joan da. Laurogeita hamar urte inguruko lau herritarren gaur egungo eta iraganeko bizimodua jaso du, fantasia eta errealitatea estilo dotore eta arinean nahastuz.

**Zer da Aulki- jokoa?**

Aulki-jokoa bizitzaren metafora da. Denok gabiltza dantzan aulki batzuen inguruan, baina beti egongo da dantzan ari garenak baino aulki bat gutxiago.

**Baina liburua asmo hutsa zenean “Hamaika makila” zen izenburua.**

Nik banekien fikzioa egin nahi nuela, baina errealitatean neuzkan erreferentziak Getaria eta hango aiton-amona koadrila bat ziren. Hamaika ziren. Behin sartu nintzen gozotegi batean, eta aiton-amona horien hamaika makilak ikusi nituen kantoi batean pilatuta. Irudi hori gogoan, “Hamaika makila” izeneko proiektua aurkeztu nuen Joseba Jaka bekara. Baina gero konturatu nintzen, egiak hutsa balio duela literaturan, eta hamaika pertsona horiek ez zutela hiru edo lau pertsonaia baino gehiagorako ematen. Liburuaren idazketaren erdialdera, zazpi edo zortzi pertsonaia ezabatu egin nituen. Ez zuten ezer egiten, dekoratu hutsa ziren. Hil nituenean, gelditu zirenak benetako pertsonaia bihurtu ziren, konturatu nintzen zeri eman nahi nion garrantzia, zeinen ahotsak zeukan indarra. Eta orduan hartu zuen benetako indarra Aulki-jokoa tituluak.

**90 urte inguruko koadrila hori bera izan duzu informatzaile?**

Bai, elkarrizketatu egin ditut eta gozotegian ere egon naiz haiekin maiz. Esaten zidaten guztiak balio zidan, beraien iraganeko istorioak, hizkerak... Informazio pila jaso behar izan nuen gero fikzioa sinesgarri egiteko.

**Errealitatetik fikziorako jauzia zaila izan al da?**

Zahar hauek fantasiaren eta errealitatearen arteko muga ez dute guk jartzen dugun leku berean jartzen. Gu askoz ere pragmatikoagoak gara. Julio Cortazaren esaldi batekin oso identifikatua sentitzen naiz. Berak zioen bi trauma izan zituela haurtzaroan: heriotza deskubritzea eta konturatzea errealitatearen eta fantasiaren arteko muga beretzat ez zegoela besteentzako zegoen leku berean. Gure kontrolpetik kanpo dagoen guztia salbuespena, kointzidentzia edo kasualitatea da guretzat. Zaharrek ez dute horrela bizi. Naturalitate guztiarekin kontatzen dituzte guretzat ipuinetako kontuak direnak.

**Pertsona horiekin betirako galduko den memoria bat harrapatu duzu liburuan.**

Iruditzen zait badoan bizimodu bat dela. Idazten ari nintzen bitartean koadrilla horretako hiruzpalau hil dira. Hori da aulki-jokoa.

**Mintzo diren hiru narratzaileak emakumeak dira nahiz eta gerra izan gaietako bat. Zergatik?**

Atzera egiten banuen gerra kontatu behar nuen eta gerra zibilaz beste ikuspegi bat eman nahi nuen. Iruditzen zitzaidan emakumeen ikuspegia ez dela hainbeste landu. Emakumeek esaten dute gerra gizonek egin zutela, baina beren kontakizunetan, gerra hitza aipatu gabe gerra kontatzen dute. Hori jaso nahi izan dut.

**Gozotegian daudenen artean 1000 urte betetzen dituzte, eta horien bizitza 122 orrialdetan biltzen duzu. Pentsatzekoa da 244 orrialde ere erraz bete zitezkeela.**

Liburu honetan hitz bakoitza dago neurtua. Une batean hartu zuen forma gustatu, eta hortxe utzi nuen. Nahi adina pasarte idatz nitzakeen, eta asko utzi ditut bazterrean, txikitasun horretan utzi nahi izan dut. Ez dut uste indar gehiago izango lukeenik gehiago luzatuta. Detaile asko dago gehiago garatu zitekeena, baina nahiago izan dut detaile horiek horretan utzi, bakoitzak eman dezala distira txiki bat.

**Zer moduz sentitu zara lehenengo eleberria idazten? Zer ikasi duzu?**



Pertsonaiekiko errespetua neureganatu dut. Egin ondoren konturatzen naiz nobelak ze aukera ezberdin eman dizkidan, adibidez, pertsonaiaren psikologia garatzeko. Ipuin askotan ekintza garatzeko aitzakia baino ez dira izaten pertsonaiak.

**Esana duzu errespetua diezula ofizio honekiko errespetua erakusten dutenei.**

Niretzat errespetua lana da, pasioa eta seriotasuna. Benetan pertsonaietan sartu eta beraien azalean jarri, zer gertatuko litzatekeen galdetu... benetan sinestea. Eta ez zerbaiti buruz idaztea, besterik gabe, gai horrek eman dezakeela iruditu zaizulako! Teknika menderatuz gero edozein gaik eman dezake, baina galdera da: "niri ematen dit? eta nik eman dezaket?"

Nik pentsatu nahi dut, bertsoa, edo idaztea, edo beste edozein arte espresio zerbait esateko edo komunikatzeko bide bat direla, eta ez helburu bat bere baitan. "Itxarote aktiboa" erreibindikatzen dut. Lanean ari naiz, jasotzen, ariketa egiten, gauza batek benetan harrapatzen nauen arte. Pasioz lan egin ahal izateko. Ez dut autoenkargurik nahi. Eskertzen dut liburu bat hartu eta intentzio bat ikustea, idazleari idatzi duena axola zaiola nabaritzea.

**Nola ikusten duzu euskal literatur mundua, zein ditu erronka nagusiak edo ajeak.**

Planteamendu orokorragoa egin behar genukeela uste dut, nolako kultur eredua nahi dugun pentsatu behar genuke. Kultura zertarako? Ezkerra, kontzeptu gisa, oso ahulduta ikusten dut orokorrean, eta baita kulturan ere. Ezkerretik eraikitako kultur eredua nahi nuke nik, instituzioetatik eta kontsumotik askeagoa. Gaur egun kultur sorkuntza oso urria da zirkuito ofizialetatik kanpo, eta existitzen dena ezkutuan dago, ez du oihartzunik. Hedabideak ere oso formalak dira. Artistek eragile izan behar lukete, zentzu guztietan, eta gaur egun, askotan, politikarien edo apaizen antz handiagoa dute. Kontua ez da kultur munduan leku bat izatea, nork bere lekutik eta bere eran sortzea eta eragitea baizik.

**Nola uztartzen dituzu bertsolari eta idazle lanak?**

Bi esparru ezberdin dira. Ez dut sentitzen aukeratu beharrik. Osagarriak dira eta biak behar ditut: behar dut bertsolaritzaren sozialtasun hori, lagunartea, umorea, arriskua... baina behar dut baita ere, txiste azkarrak aparkatu eta literaturaren beste erritmo hori, bakardadea, hausnarketa.

**Paperezko liburua edo elektronikoa?**
Paperezkoa.
**Literatur irakurketarako leku eta postura bat.**
Itsasertza.
**Udarako irakurgaia.**
Hanif Kureishiren Intimitatea (Txalaparta) edo Eider Rodriguezen Haragia (Susa).
**Pertsonaia historikoa.**
Simone de Beauvoir
**Gustuko pertsonaia literarioa.**
Horacio Oliveira
**Errezeta bat.**
Gazta tarta.
**Kantu bat.**
*Abrázame*, Doctor Deseo.
**Musikari edo musika taldea.**
Leonard Cohen.
**Hiri edo herri bat.**
Lisboa.
**Udako plan bat.**
Motxila hartuta bidaiatzea.



# ENTENDER LA CRISIS ES POSIBLE

Sin lugar a dudas, vivimos la crisis económica más grave conocida en muchas décadas. Hace tiempo que nadie lo cuestiona. Pero, mientras tanto, se inyecta con dinero público a la banca, las instituciones se adeudan, se habla de reinventar el sistema, de refundación del capitalismo, de solidaridad... Pero ¿se está actuando correctamente?

Como se hace ante cualquier otro problema es imprescindible conocerlo, entenderlo y buscar soluciones. Así, para la posible solución de la crisis, se requiere un diagnóstico preciso de la situación. ¿Qué está ocurriendo? ¿Cuáles son las claves? He aquí unos títulos que nos ayudarán a comprender lo que sucede.

Leopoldo Abadía es el autor de *La crisis Ninja y otros misterios* (Espasa), un libro sencillo y directo. Abadía dice de sí mismo que no entiende de economía, pero lo cierto es que consigue que hasta el más profano acabe entendiendo cuál es el origen de la crisis. Convierte la economía en una ciencia comprensible y amena.

El prolífico Paul Krugman, Nobel de Economía 2008, publica *El retorno de la economía de la depresión y la crisis actual* (Crítica), donde explica cómo y por qué han fallado los mecanismos de regulación de un sistema financiero que ha puesto al mundo ante la mayor crisis desde el crash de 1929, y nos muestra el camino que hay que seguir para superarla. Al igual que el título anterior esta obra es de fácil lectura, comprensible para el público general.

El destacado intelectual Ignacio Ramonet presenta *La crisis del siglo: el fin de una era de capitalismo financiero* (Icaria). Ramonet califica la actual situación de crisis como momento histórico, donde la hegemonía económica de Estados Unidos se debilita, desplazándose el centro de gravedad económico de Occidente hacia Oriente. Subraya la necesidad de refundar un nuevo sistema económico más justo y sencillo.

*El estallido de la burbuja: cómo se llegó a la crisis y cómo salir de ella* (Ediciones Gestión 2000) de Robert J. Shiller, desvela los orígenes de la crisis y propone soluciones para resolverla.

Un título inquietante que está despertando verdadero interés: *El Crash del 2010* (Lince), de Santiago de Niño. El autor analiza en profundidad las causas de la actual crisis, y anuncia que la auténtica crisis estallará con toda su crudeza en 2010. Y lo dice un autor que ya en tiempos de bonanza alertó de lo que iba a ocurrir.

*El nuevo paradigma de los mercados financieros* (Taurus) de George Soros. Un conciso ensayo que combina ejemplos prácticos con las reflexiones del autor. Contribuye a entender la crisis y







sus implicaciones para el mundo entero.

Para el ciudadano de a pie, tan urgente como entender la crisis es encontrar claves para afrontar la penuria económica. *Cómo superar la crisis: decálogo de supervivencia* (Ediciones B) de J.L. Calvo y J.A. Martínez, explica al lector todas las posibilidades que tiene a su alcance.

*Bancos, banqueros, bandidos* (Foca) de Joseph Manuel, es un título que llamará la atención del lector, ya que coincide con la sensación que la opinión pública tiene de que la banca está en el origen de la crisis, y sin embargo, es la principal beneficiaria de las ayudas públicas. Este libro explica a los lectores los entresijos del complejo ámbito financiero.

Para finalizar con un valor seguro, del prestigioso novelista y economista Jose Luis Sampedro encontramos *La economía humanista, algo más que cifras* (Debate), en las librerías desde comienzos de año.







# HELENA TABERNA *proposamena*

## TIEMPOS DE TORMENTA (PÍO BAROJA 1936-1940)

*Tiempos de Tormenta* es el último libro que he leído de manera apasionada. Lo he leído como recuerdo que leía en mi adolescencia, sin poder dejar de hacerlo, y con una enorme pena de pensar que el libro se tenía que acabar.

No sé muy bien por qué me caló tanto y tan pronto, pero *Tiempos de Tormenta* me atrapó desde el primer momento. Creo que tiene que ver con la estructura que utiliza Sánchez-Ostiz, una estructura que te obliga a ser juez y parte del relato, de ese tiempo, del miedo, de la niebla...




El libro narra cómo en el mes de junio de 1936, Pío Baroja se fue de Madrid para pasar el verano en Bera de Bidasoa sin saber que, unas semanas más tarde, iba a estallar la Guerra Civil, que le llevaría al exilio, después de un encuentro con los requetés  que pudo haberle costado la vida.

Vemos como Baroja, exiliado en Francia durante cuatro años, se esforzó por mantenerse al margen de los acontecimientos, defendiendo, de manera no siempre fácil de entender, su independencia personal y su individualismo, no queriendo comprometerse ni con unos ni con otros.

Pero lo que hace el libro tan atractivo es la forma que ha elegido Miguel Sánchez-Ostiz de mostrarnos los hechos, haciéndonos participar tan vivamente de esos intensos momentos. Por un lado accedemos a los propios textos de Baroja, por otro a la descripción geográfica e histórica del personaje en su tiempo, y además subyace el análisis de todo ello, guiado por el propio Sánchez-Ostiz, que es un gran conocedor de la obra de Baroja.

*Tiempos de Tormenta* es sobre todo un libro atmosférico, como el cine que más me gusta. Por eso me imaginaba los personajes filtrados por la atmósfera de una película de cine negro francés, sobre todo cuando describe algunos momentos en San Juan de Luz donde se reunían esos personajes reales que estaban viviendo los primeros días de la guerra, desde el desconcierto y la distancia protectora de la frontera.

La lectura de *Tiempos de Tormenta* te obliga a sacar tus propias conclusiones sobre los distintos momentos que vive Pío Baroja en esos años de exilio. Y también te obliga a desmitificar al Baroja-personaje. Sánchez-Ostiz te coloca frente a sus/tus cobardías, sus/tus protecciones, y consigue que sientas muy cercano el origen del miedo. Del miedo de Baroja, y también muy probablemente de muchos de nuestros propios miedos.




La mejor literatura de Bolsillo
Compactos Anagrama
Roberto Bolaño
2666
David Trueba
Saber perder
Alessandro Baricco
Lionel Shriver
Belén Gopegui
Jed Rubenfeld
José Antonio Marina
Richard Ford
Nick Hornby
Bolsillo Paidós
WIKINOMICS
Drakontos Bolsillo
TYRANNOSAURUS REX
MARIE CURIE
Y SU TIEMPO
Biblioteca de Bolsillo
JOSEPH PÉREZ
Breve historia
de la inquisición en España
MARC BLOCH
La extraña derrota
Alba minus
La pobre
señorita Finch
Wilkie Collins



# HIRIADNA

**Harkaitz Cano**

# ISTANBUL

## MUNDUAREN BISAGRA

Mendebaldearen eta ekialdearen arteko bisagra dela esan izan dute Istanbuli buruz. **Pierre Loti** idazle erromantikoaren izena daraman kafetxe honetatik, sinetsi egiten dugu. Garaien arteko zubia dela hiri hau. Leinu eta jendeen artekoa. Elurraren eta izerdiaren arteko gurutzaketa. Tearen eta kafearen artekoa. Besarkada eta kartzela. Gizasemea eta zakurra. Gauaren eta egunaren arteko akordio ezinezkoa. Okerrenerako prest zaudenean onenarekin harrituko zaituena. Trafikoaren kaosa eta zeruaren oreka. Bartzelona eta Kairoren alaba umezurtza. Norbere burua galdu eta aurkitzeko hiria. Mozkorraldiarena eta barauarena. Idazleak inspiratu eta zigortzen dituena: **Yasar Kemal** kurdua (*Ararat mendiaren sumina, Zanpa ezak sugea*) kartzelara bidali zuena, eta lerro hauek idazten ditudan bitartean *Alla-ren alabak* nobelan erlijioari laido egiteaz akusaturik **Nedim Gürsel** epaitzen duena. **Gabriel Arestik** aspaldi itzuli zuen **Nazim Hikmet** poetaren *Lau gartzelak*. **Orhan Pamuk** (*Elurra, Estambul: memorias y la ciudad*) nobel sariduna irakurri besterik ez dago Turkia pendular honen kontraesanen berri izateko. Pera Palas hoteletik gertu (bertan idatzi zuen **Agatha Christiek** *Orient Expresseko hilketa*) eskutik doazen bikoteak ikus ditzakezu, baina San Salvadorretik atera orduko beltzez jantzitako emakumeak dira nagusi, erabat estalitako gorputzak, begientzat zirrikitu bat besterik ez dutenak, seme-alabak eskutik arrastaka daramatzatela. Mezkita Urdinaren inguruan hotel hantusteak, erortzear dauden eraikin dekadenteak hurrena (“oso gaizki egon arren, ez erortzea da etxeen berezko joera” dio lagun arkitektuak, gu lasaitu guran). Merkatalgune erraldoiak denda ziztrin erakargarriekin tartekatzen dira. Ahobiko labana, Istanbul. Ezkontzek ere, osoko balioa izango badute, bikoitzak izan behar: lehenbizi zibiletik eta gero elizatik. Hil, behin bakarrik hiltzen dira, eta eskerrak; Islamak errausketa gaitzesten duenez, zail dago hildakoak non lurperatu asmatzen. **Chateaubriandek** hala idatzi zuen 1806an: “Hiri honetan, saltzeaz, erosteaz eta hiltzeaz ase dirudite biztanleek.”

Misteriorako eszenatoki aproposa da Istanbul, horren lekuko **Elif Shafaken** *La bastarda de Estambul*, **Cecil Okerren** *Un cadáver junto al Bósforo* edo eta **Petros Márkarisen** *Muerte en Estambul* argitaratu berria: Istanbulera darama oraingoan idazleak Kostas Jaritos ikertzailea. Hain hiri argitsuak zer ote du krimenaren itsasargi izateko? Aspalditik dator kontua: **Orson Welles** eta **Joseph Cottenek** 1943an **Eric Amblerren** nobela egokituz egindako *Journey to Fear* film koskorra, *Estambul* birbataiatu zuten gazteleraz. Merkatal ontzietako ganbaroteetan eta kabaret borborkarietan gauzatzen da film beltza. Aspaldion usu ikusi dugu zeluloidean Istanbuleko karrika estuen isla indartsua: *Hamman* iradokigarrian, iaz Donostiako Zinemaldian saritutako *La caja de Pandoran*... Baina zuzendari bat aipatzekotan, **Fatih Akin** da hori: *Cruzando el puente, Contra la pared* eta *Al otro lado* zuzendu dituena, Turkiak Alemaniarekin duen loturaren erakusgarri (**Emine Sevgi Özdamar** idazlearen *El puente del Cuerno de Oro* da harreman gatazkatsu horren beste adibide bat). Soinu banda ederragatik bereziki aipagarria da *Al otro lado*, **Mackali Hasan Tunc, Kazim Koyuncu, Ahmet Kaya, Selim Sesler** edo **Sezem Aksu** bezalako artisten lanak jasotzen baititu, ekialdeko musikatik abiatu eta *dub* ukitua duten moldaketekin buka.

Izan ere, kantuetan sarri-sarri agertzen da Istanbul, modu mitiko edo sinbolikoan ia beti: **Juan Carlos Perezen** *Hau berua* diskoan, bere jaioterritik urrun jaio izan balitz nor izango ote zen galdetzen zion kantariak bere buruari: “Istanbulen jaio banintz, adibidez, arrai saltzailea Karakoy zubian gauero izarrei begira.”

Ez dugu Istanbuleko gauez hitz egin. Argia itzaltzen denean pizten diren gauza horiek guztiez. Katuen ukimena eta ikusmena ditu Istanbuleko gauak.






# LLENAR EL VERANO SIN VACIAR EL BOLSILLO

Los libros de bolsillo son los más veraniegos. Son pequeños, ligeros, manejables y asequibles. Es fácil hacer hueco en la maleta para llevarse más de un título de vacaciones. Se dejan leer en cualquier posición y contexto, no molestan las solapas, la tapa dura, ni el peso y no preocupan la arena, las manchas, ni los pliegues de las páginas, ya que son más económicos. ¡Es el formato de verano!

El precio de los libros de bolsillo oscila entre 6 y 14 euros, aunque también es posible encontrar libros por 3 euros. El tamaño no supera los 12 x 19 cm. Estos son los principales factores del éxito del formato de bolsillo, además de la extensísima lista de títulos publicados, que abarca todo tipo de temáticas y géneros. Otro factor que explica la buena aceptación del bolsillo es la garantía que da saber que los títulos han funcionado anteriormente en formato tradicional.

El ciclo del libro comienza con una edición principal, que aproximadamente al año pasa a editarse en formato bolsillo, a un precio muy inferior al que tenía en la primera versión. La reedición de bolsillo, acompañada de nuevo lanzamiento y promoción, brinda una nueva oportunidad tanto al lector, como al libro. Esos títulos que no se han podido leer por falta de tiempo, o que en su primera publicación pasaron inadvertidos, llegan ahora a las manos del lector.

He aquí un selección de las últimas novedades de bolsillo:

**NOVELA CONTEMPORÁNEA**

De entrada unos títulos que nos harán viajar en el espacio y en el tiempo. Del Novel Naguib Mahfuz, la editorial Martínez Roca publica la trilogía El Cairo en formato bolsillo: *Entre dos palacios, El palacio del deseo* y *La Azucarera.* Una literatura de excelente calidad que ayuda a conocer el mundo musulmán. Otra novela que













mira a oriente, *Opium* (Siruela bolsillo) de Jesús Ferrero, es exótica y viajera. El relato está ubicado en la frontera chino-tibetana. Un libro reeditado en varias ocasiones que el lector demanda continuamente.

*Saber Perder* (Anagrama) de David Trueba, mereció el Premio Nacional de la Crítica 2008. Es un relato de cuatro supervivientes, Sylvia, Leandro, Ariel y Lorenzo. Una novela divertida y llena de humor. El premio Pulitzer, Junot Diaz, relata la vida de un dominicano residente en New Jersey en *La maravillosa vida breve de Oscar Wao* (Debolsillo). La editorial Punto de Lectura edita cinco títulos de Rosa Montero, el más reciente, *Instrucciones para salvar el mundo* y, entre los anteriores, *Amado amo*.

## NOVELA HISTÓRICA

De la escritora alavesa Toti Martínez de Lezea, *La cadena rota* (Maeva), nos lleva al pequeño pueblo de Sara, en Lapurdi, en tiempos de la revolución francesa, con un protagonista varón, Joantto Ithurbide, nieto bastardo de Gehexan de Jaurenea. Geográficamente cerca de la anterior, Languedoc, y más próxima en el tiempo, el siglo XIX, se sitúa *La bodega* (Roca) de Noah Gordon. Un novela sobre el mundo del vino. En *Quattrocento* (Booket Logista), Susana Fortes llevará a los lectores de la Florencia del siglo XXI a la del siglo XV, a la Florencia de Botticelli y Leonardo.

## NOVELA NEGRA E INTRIGA

Un título que bien podría ir en el apartado de clásicos: *Diez negritos* (RBA) de Agatha Cristie. Se trata de una edición limitada que conmemora el 70 aniversario de su primera publicación. *La interpretación del asesinato* (Anagrama) de Jed Rubenfeld. Novela de intriga en la que el mismo Sigmund Freud colabora en la resolución de un caso que requiere sesiones de psicoanálisis. Sucede en Nueva York el año 1909. *La apelación* (Debolsillo) del autor de bestsellers Jhon Grisham, llega en julio en formato bolsillo. Una novela que combina suspense con denuncia política. De Henning Mankell llega en bolsillo, *Pisando los talones* (Maxi-Tusquets), uno de los casos más complejos y llenos de suspense del célebre inspector Kurt Wallander, que además, se encuentra enfermo. *El clan Inugami* (Factoría de ideas) es el relato donde aparece por primera vez el detective Kosuke Kindaichi, el protagonista de la mayoría de los libros del japonés Seihi Yokomizo.

## CLÁSICOS

Los clásicos también encuentran espacio en formato bolsillo. Dos muestras recientes y bien diferentes: *Rimas y leyendas* (Austral) de Gustavo Adolfo Becker y *El extraño caso de Dr. Jekyll y Mr. Hide* (Pocket) de Robert L. Stevenson.

## BIOGRAFÍAS

*Las vidas de Joseph Conrad* (Debolsillo) escrita por John Stape. Reconstruye la vida del que fuera gran escritor, y también, gran viajero. El libro incluye cantidad de fotografías inéditas. Otra biografía que despierta interés: *Marilyn Monroe* (Anagrama) de Donald Spoto.

## CUENTOS Y RELATOS

*Vivir adrede* (Punto de Lectura) de Mario Benedetti, o cualquier otro de los títulos recién publicados en formato de verano del autor Uruguayo. Dos libros de cuentos de dos clásicos de la literatura: *Los Cuentos* de Edgar Allan Poe (Debolsillo), con quien el suspense está siempre asegurado y *Cuentos completos de Isaac Asimov* (Ediciones B - Zeta bolsillo), que publica cerca de cien relatos en dos tomos.

## VIAJES

El verano es la estación ideal para leer sobre viajes. El sello Ediciones BZeta propone tres nuevos títulos: *El peor viaje del mundo* de Apsley Cherry-Garrard, que relata la durísima expedición de Scott al Polo Sur (1910-1913), *En el gallo de hierro* de Paul Theroux, cuenta su propia experiencia viajando a pie y en tren a través de China, y *Volcanes dormidos: un viaje por Centroamérica* de Rosa Regas y Pedro Molina, donde los dos escritores viajan por Guatemala, El Salvador, Honduras, Nicaragua y Panamá.

Esta es una selección de títulos de bolsillo, limitada por el espacio de la página. Pero en las librerías caben muchas más libros, las estanterías están repletas de lectura de bolsillo.

novedades




PVP 35,00 €




PVP 29,90 €




PVP 39,90 €



PVP 59,90 €

BLUME www.blume.net



# HIL EZ DIREN HILDAKOAK

## ODOL XURGATZAILEAK

Armenian Dakhanavar piztia bizi da. Inor hurbiltzen bazaio hanka zuloetatik xurgatzen dio odola. Txinatarrak Jiang Shi deabruaren beldur dira, bizi dagoen gizonaren gorpua hartzen du eta bizi diren besteen odola edan. Mexikon kontuz izan behar da Ciuateteo emakumeekin, bidegurutzeetan egoten baitira sorginak, jaio berrien odola edateko prest. Islandian diotenez, hobe da besoetako haurrek ez dezatela agure edo atsoen ondoan lorik egin, nahi gabe ere, bizitza xurgatu egiten dietelako. Agertu berri da Venezian, adreilua ahoan lurperatu zuten andrea, beldur ziren banpirismoak jota hil zela eta esnaturikoan, bizi direnei sukar ustela kutsatuko ziela.

Bihotza zatituta soilik hil daitezke. Baina lepoa ebaki behar zaie gero. Hildakoaren odola edateak ere hiltzen omen ditu edo gaixotu. Berakatza ez omen zaie gustatzen. Ez dira ispiluetan agertzen. 1819an Keats poetak Grezia eta Erroman gurtzen ziren *lamiei* idatzi zien. Aintzinako banpiroak, Euskal Herrian bezalako andre sorginak, gizona zoratzen dutenak sorginkeriaz, koittaduak jakin gabe norekin dagoen. Banpiroak andre lizunak izan dira mitoetan, emakumeen sexualitatea arriskutsu direla esan digute eta hil egin dituzte idazle eta poetek. Stokerren Drakulan, ostera, Mina andre bertutetsua da, deabru nazkagarriaren xarmak ez du liluratzen eta bere senarrarekin batera gailentzen da Drakularen aurka.

Argia eta iluntasuna. Sexu gosea. Herioren beldurra. Odoleko gaixotasunak. Gizakia imajinatzen hasi zenetik, banpirismoak hortaz hitz egin digu, ilunaren arriskuez eta gozamenez. John William Polidorik idatzi zuena, Mary Shelleyk Frankestein idazten zuen bitartean vampiro erromantikoa zen (*El vampiro*, La otra orilla argitaletxearena). Coppolak zinera eraman zuena ere erromantikoa zen, erotzeraino. Hantxe, zinean, pelikula horrekin maitemindu nintzen ni mitoarekin. Aretoaren ilunean Gary Oldmanek denboraren ozeanoa zeharkatu zuen maite zuenarekin egoteko, Jainkoa ukatu zuen eta ohean odola edan zion eta edatera eman, "zatoz nirekin" esanaz, "betiko bizitzera". Haginkadaka maitasuna, odol koloretan. Stokerri esker banpiroa eta Drakula sinonimoak dira. Horregatik, agian, editatzen jarraitzen dute bere lana (Elkar argitaletxeak Drakularen bertsio laburtuak ditu eta Stokerren *Drakularen etxean* osatzen dituzten bi ipuinak itzuli zituen Joxemari Azurmendik). Historiaren errealismoak ematen dio indarra Drakulari. Benetako






kontea zen, Errumanian boterea hartu zuenean noble guztiak gonbidatu zituen etxera eta arerioak bertan hil, bihotza erdibituta, bere eskuz (mito haragi den historiaz idatzi du Ralf Meter Martinek, *Drácula, Vlad tepes, el empalador y sus antepasados* lanean).

Terrorea dakar banpiroak. Eta zirrara berean, erotismoa. Banpiroak abentura agintzen du, gauaren pirata da eta gizartearen konbentzioak hausteko gogoa duten familia oneko emakumeen fantasia izan daiteke (*Desnuda la noche*, Sherrilyn Kenyon, Plaza Janes). Baina banpiroa komedia ere bada. Nik gogoratzen dudan pelikula absurdoenak, Rockula izena zuen. Rock and roll izar izan nahi duen banpiroaren ipuina. Hain da geurea mitoa, umeentzako ere moldatu dugu. Beldurgarriak maitagarri egiten dira, adibidez, *Banpiro txikiaren* ipuinetan (Angela Sommer-Bodenburg, Zubia argitaletxea). Munstroei etxean egiten diegu leku eta telebistak, besteak beste, inor hiltzen ez duten banpiroak gizartearen kondenatu bihurtu ditu, arrazismoaren metafora (True blood teleisalak halaxe egin du eta papereko bertsioa (Hiru liburu: *Club de los Muertos, Vivir y morir en Dallas* eta *Muerto hasta el anochecer*) idatzi du Charlaine Harrisek, Punto de Lectura argitaletxean).

Likantropoak, zonbiak, era guztietako deabru eta aingeruak, denak maite ditugu, denek hartzen dute haragi gure ipuinetan, pelikuletan, abestietan eta modan baina banpiroak gailentzen dira besteen gainetik. Saman haginkada egiten dute eta gizakion inkontzientean ere antzera. *Crepúsculo* (Stephanie Meyer, Alfaguara) sagaren indarra ikustea besterik ez dago mitoak beste belaunaldi bati odola atera diola ikusteko eta Crepusculoren antzekoa, *Crónicas Vampíricas* (L. J. Smith, Destino. Lauko bilduma: *Innovación*, *Furia*, *Conflicto* eta *Despertar*). Bietan, banpiroak institutuan eta amodio kondenatuak. Anne Ricen gotikoarekin zerikusi gutxi baina mitoak gogoeta metafisikoak zein gaztetxoentzako zirrara erromantikoak eskaintzen ditu. Azken baten maitemintzea odola galtzea izango da, beharbada, eta beharbada ez da inoiz gazte-gaztetan bezain beste odol galtzen, lehenbiziko maitasunaren gora beherekin. Horregatik izango ote du institutuan halako arrakasta banpiroak? Pentsatzen hasita, ez da al da izango bi munduren artean bizi den izakia nerabezaroaren metaforarik zorrotzena? Ez ume, ez nagusi, ez bizi, ez hil. Aukeran dituzte abentura banpirikoak nerabeek. Cassandra Clare idazleak Pandemonium izeneko diskotekara eraman ditu odol xurgatzaileak (*Cazadores de sombras*, Destino) eta Claudia Grayk eskola pribatura (*Medianoche*, Montena).

Mitoari haginak kendu ez badizkiogu ere, leundu egin dizkiogunik ezin ukatu. Poliziari laguntzen dioten izakiak ere badaude (lehen aipatutako *Vivir y morir en Dallas*). Ohera ekarri dugu munstroa, etxera eta klasera. Eta hala ere, mito hilezkorra behin eta berriz haragitu eta literatur orrialde bihurtu bada, zirrara eragiten digulako da. Erromantiko, nerabe, maitemindu, lagun edo polizia, banpiroak edozein unetan odolustu gaitzake eta haginkada horri diogun beldurrak eta gogoak ematen dio mitoari bizirik irauteko behar duen odola.

**Irati Jimenez**



Irati Jimenezen bigarren eleberria da "Nora ez dakizun hori"(2009): banpiro eta likantropoak daude bertan, arima erosten duten aingeruak, ama hil ostean jaiotako haurrak, magoak... Pasioz eta liluraz beteriko liburu erromantiko ederra da, goiko artikuluan ageri duenez horren ongi ezagutzen duen giro horri buruz euskaraz dagoen ale bakan eta guztiz interesgarria.




# IMPOSIBLE HACERSE **EL SUECO**



Stieg Larsson, un escritor sueco que murió antes de ver publicada su obra, es el autor de la exitosa trilogía Millenium. Hace aproximadamente un año salió a la venta el primero de los libros, “Los hombres que no amaban a las mujeres” (Destino) y seis meses más tarde llegó “La chica que soñaba con una cerilla y un bidón de gasolina”. En un año escaso se han vendido 12.600.000 unidades en todo el mundo. Los ejemplares de las bibliotecas están siempre en préstamo. Los lectores hicieron su reserva para no quedarse sin el tercer libro, “La reina en el palacio de las corrientes de aire”, cuya llegada a las librerías se anunciaba para el 18 de junio. Hay quien no ha podido esperar y se ha animado con la versión en francés.

¿Qué es lo que causa semejante furor? ¿Por qué gusta tanto? Tres lectores, vinculados al sector librero, nos dan alguna pista. Responden a tres preguntas:
1.¿Qué es lo que más te ha gustado de la saga Millenium?
2.¿Cuales son tus personajes preferidos y por qué?
3.¿Qué pasará en la tercera entrega? ¿Qué te gustaría que ocurriera?

**IZASKUN KORTAJARENA**
Responsable librería elkar
(Licenciado Poza, Bilbao)

1. Me ha gustado todo. Los títulos crean una incertidumbre que incitan a leerlos, coger el libro y ojear el contenido. También es reseñable la velocidad de la novela, sobre todo en la primera, aunque en los inicios mucha gente duda de si seguir leyéndola o dejarla, una vez superado ese inicio es tan rápida que para cuando te has dado cuenta se te ha terminado. De la trama reseñar que es una investigación pero no policíaca.
2. El personaje que más me gusta es Lisbeth Salander, la chica protagonista de la saga. Me ha gustado por su carácter revoltoso, desafiante, y muy inteligente. En mi opinión es la principal protagonista.
3. Creo que será en la línea de las anteriores, pero sí sé cómo nos quedaremos: con la triste sensación de que esto se ha terminado, de que no vamos a tener mas entregas de la serie Millenium, por que no tenemos ya el autor que la escribió. A mí me gustaría que terminara con los dos personajes protagonistas juntos y solos los dos.

**AINGERU EPALTZA**
Idazlea

1. Erakargarria egin zait nola eguneratzen dituen genero beltzaren ezaugarri eta are topiko nagusiak, milurte honetako lehen hamarkadara eta gure garaiko sentiberatasunera ekarrita. Millenium-en, konparaziorako, gaizkileak emakumeen kontrako jazarleak eta botere ekonomikoa dutenak dira, bereak egiteko gure Mendebalde hipokritako gizartearen eta agintearen axolagabekeriaz baliatzen direnak.
2. Lisbeth Salanderren pertsonaia gailentzen zaie, nik uste, gainerakoei. Harengan egungo emakume berria ikusi dute zenbaitek. Hainbertzerako gabe, garbi dago Larssonen nobelak ezberdinak liratekeela protagonista estandarragoa jarrita. Mikael Blomkvist kazetari "hagitzez normalagoak" poliki betetzen du Lisbeth-en ifrentzu lana. Nobela beltzak ongi funtzionatzen du bikoteka.
3. Ez dut ja ere pentsatu. Ustekabea, zenbat eta handiagoa hobe. Aski dut lehen bien mailatik beheiti egiten ez badu.

**LUIS JIMÉNEZ DE ABERASTURI**
Editorial Txertoa

1. Las cien primeras páginas me resultaron penosas. Pero a partir de ahí, sucedió todo lo contrario. Entró en escena Lisbeth Salander.
2. Lisbeth Salander, es una libertaria, individualista y antisistema. Sabe que todo el sistema es corrupto y que este no puede permitir comportamientos como el suyo. Tiene que destruirle o anularle. Su lucha es permanente, solitaria y anónima. Su enemigo es poderoso. Lisbeth no puede amar. El amor le hace bajar la guardia, y no se lo puede permitir. Mantiene una especie de pesimismo que le hace pensar que tarde o temprano la destruirán, pero no se rinde, va a vender cara su piel. Yo creo que Lisbeth tiene razón, y que su forma de luchar es la eficaz. Que el personaje principal, el héroe, sea mujer, me resulta interesante.
3. “La reina en el palacio de las corrientes de aire” no puede traicionarnos. Creo que Stieg Larsson no habrá abandonado a su mejor protagonista.

# HIRU AUKERAN, AUKERAN HIRURAK

Inoiz baino musika gehiago entzuten dela gauza jakina da, eta horretan asko lagundu du teknologiak. Hasieran binilozko disko beltzak jira eta buelta, kaseteak gero, ondoren CD-ak, eta gaur egun, sarea eta gailu digital berriak.
Kontsumoa handitu da eta kontsumitzeko erak aldatu egin dira. Lehen autoreen disko osoa entzuten zen bitartean, egun abestika eskuratu eta entzuten da. Musika jarraitzeko era berri horretan bildumek zentzu berria hartu dute, bereziki euskarazko kantutegian.
Liburuen munduan poltsikoko argitalpenak liburuari bigarren aukera eta bultzada ematen dion bezala, bildumek astindu berri bat ematen diete kantuei eta kantarien jardunari. Horren adibide argia da **Gu gira** diskoak lortutako oihartzuna, eta bildumaren ondoren artistak eskaintzen ari diren kontzertu agenda: abuztuan Gasteizen eta Bilbon eta beste hainbat formatu txikiagoan udan zehar.
Euskal musika grabatzen hasi zenetik mende erdi inguru igaro da eta dagoeneko asko dago grabaturik, ehunka kantu, eta ondorioz, zaila da guztia entzun edo ezagutzea. Bildumak lagungarri dira ugaritasun horretan sartzeko. Kontzeptu edo irizpide jakin bat jarraitzen dute, estilo jakin bat, musikari bat, sasoi bateko musika edo gai baten gaineko abesti sorta. Kantutegi zabala hobekien ezagutzen duten adituek egindako bildumak izan ohi dira.
Horrelako hiru bilduma argitaratu dira berriki: Ama Eskual Herria, Rock eta Rollin´ eta Gaupasa!. Anjel Valdes, Elkar argitaletxeko arduraduna izan da, bilduma horien hautaketaren egilea. "Zein da zure aukera?" dio disko hauen promozio leloak. Bada, hirurak dira aukera aukerakoak:




**AMA ESKUAL HERRIA.**
Guk-en Euskalduna naiz eta, Anje Duhalderen Ama Euskal Herria, Estitxuren Gu gira Euskadiko, Labageriren Haizeak darama... Iparraldeko 20 kantu dira, herriak aberriari kantatuak, euskaldun iraun nahi duenaren historia minberaren kronika. Kantuari eusten dion herria ez baita inoiz hilko!
Abestiak garai batekoak baldin badira ere, bilduma berri-berria da.




**ROCK ETA ROLLIN´.**
Aurrekoak herri gogoa badakar, honek indarra bizi du. Hogei talderen hogei abesti dira, artean, Hertzainak-en Eh txo, Delirium Tremens-en Ikusi, M-ak taldearen Pistolaren mintzoak, edo Ruper Ordorikaren Hamabostean behin. Berriro ere harrituko dira gaztetxoenak euskal rockak eman duen kantuen kalitatearekin.




**GAUPASA!**
Euskaraz jakin beharrik ez dago gaupasa zer den jakiteko, ezta egiteko ere; dantzan jakitea (ausartzea) aldiz, oso lagungarria da gaupasa on bat egiteko. Dantzarako musika da disko hau: Trabuko, Akelarre, Alaitz eta Maider, Gozategi, Maixa ta Ixiar, Egan... Ezetz geldirik gelditu!





BIDAIAK MENDIAK

# VÍAS VERDES

## PASEOS QUE RECUPERAN LA MEMORIA RECIENTE

Las vías verdes que salpican Euskal Herria surgen de la conversión de viejos trazados de ferrocarril en paseos, convertidas en itinerarios ideales para descubrir paisajes que parecen inéditos, surcados hasta ahora por las gentes de la zona y poco más. Pero que nadie se llame a engaño. La vía verde de Atxondo los distintos tramos del Vasco Navarro o el Plazaola recuerdan que no hace muchos tiempos, la industria, la minería llevaron el ferrocarril por esos parajes. Estos caminos de hierro convertidos en paseos para recorrer a pie o en bicicleta son la memoria de una industrialización que llegó hasta el último confín del país.

